

2021/2022ko KUDEAKETA TXOSTENA
GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA

1	SARRERA.....	2
2	CAMPUSAREN ANTOLAKETA EREDUA.....	4
3	AZPIEGITURAK ETA BALIABIDEAK.....	5
4	EKINTZAILETZA ETA TRANSFERENTZIA.....	6
5	IKASLEAK, MUGIKORTASUNA ETA KIROLA.....	10
6	EUSKARA ETA KULTURA	12
7	ESPERIENTZIA GELAK.....	15

1 SARRERA

Iragandako bi ikasturteetan bereziki ikusi eta ikasi dugu ziurgabetasun handi baten erdian gaudela eta etengabeko aldaketa-prozesu honetan Unibertsitatea erdigunean dagoela. Aldaketa hauei duintasunez erantzutea guztion ardura den arren, bere izaeratik, Unibertsitate publikoak badu aparteko erantzukizun bat. Zalantzez betetako etorkizun ilun honetan gure Unibertsitatea gai izan da gizarteak zeuzkan hainbat galderei erantzuteko eta hauek sortzen zuten egonezina apur bat baretzeko.

Ziurgabetasun egoeran aurrera egiteko, talde honentzat aparteko balioa du Unibertsitateko kolektibo guztiekin elkarlanean aritzea. Hausnarketa partekatatu batetik hasi eta, dauden baliabideak kontuan hartuz, irtenbide adostuak proposatzen saiatu gara, beti ere Unibertsitatearen aniztasuna kontuan hartuz.

Zentzu horretan, ikasturte honetan ere, Campus inklusibo bat lortzen saiatu gara norbanakoen izaera eta iritziak errespetatuz, eta lan egiteko eta ikasteko espazio atsegina eta egokiagoak lortuz.

Aurtengo ikasturtean aparteko garrantzia eman nahi izan diogu, ondorengo urteetarako baliaigarri eta aplikagarria izan daitekeen hausnarketa estrategiko bat egin delako. Prozesu honetan parte hartu dute Gipuzkoako errektoreordetzak, Campuseko ikastegietako dekanotza eta zuzendaritzek, EHUko ikerketaren emaitzak eskualdatzeko bulegoak (IEEB) eta Euskampus Fundazioak.

Askotan esaten dugu Campusean hiru belaunaldietako pertsonak nahasten garela, ikasle gazteenetatik hasi (18 urte ingurukoak) eta ikasle helduenetara (81 urte ingurukoak). Aberastasun hau kontuan hartuz, belaunaldi hauen arteko zubiak eraikitzen lagundu duen "Etorkizuna Eraikiz Foroa" ekimena martxan jarri dugu.

Kultur arloan, orain arteko ekimen ezberdinak mantentzeaz gain, inguruko kultur agente ezberdinekin harremanak sendotuz joan gara.

Kirol eskaintzari dagokionez, aparteko esfortzua egin da Campusean ikasi eta lan egiten duten pertsonen ohiturak, pixkanaka, aldatzen joan daitezela eta era osasuntsuago batean bizitzen ikasi dezaten.

Campus, orokorrean, gaztea dela esaten dugu baina bertan kokatuak dauden hainbat eraikin zahartzen hasi dira eta, ondorioz, geroz eta mantentze-gastu handiagoa behar

dute. Hemen ere esfortzu berezia egin dugu ikastegi eta zentro ezberdinek gaur egun eskaintzen dituzten zerbitzuak mantendu eta, ahal bada, hobetu ditzaten.

Ekintzailtza eta transferentziaren arloan, Campusean dauden ekimen eta dinamika ezberdinak indartu dira eta estrategia berri bat martxan jarri da.

Guzti hau gauzatzeko beharrezkoa izaten jarraitzen du Gipuzkoako Campuseko Unibertsitate-kide guztien inplikazioa. Eginbehar honetan arduraldia eta inplikazioa ez dira falta izan, eta hauei esker erronka berriei aurre egiteko gai izan gara.

Agustin Erkizia

Gipuzkoako Campuseko Errektoreordea

2 CAMPUSAREN ANTOLAKETA EREDUA

2.1 Campuseko Batzarraren kide diren kolektibo ezberdinen parte hartzea sustatu.

- Ikasleen ordezkariekin bilera egin da eta komunikazioa areagotu da, Idazkari Akademikoaren bitartez, Campuseko batzarrean eta batzorde ezberdinetan, ikasleen parte hartzea sustatzeko.

2.2 Errektoreordetza eta Zuzendaritza ezberdinen arteko komunikazio bideak sustatu eta indartu, Gipuzkoako Campusaren eskumenak diren gaitan elkarlana egin ahal izateko.

- Campuseko Errektoreordeak UPV/EHUko beste Errektoreordeekin astero bilerak egiten ditu. Bestalde, Errektoreordeak, bere zuzendaritza taldeko kideekin batera, Campuseko ikastetxeen Dekano eta Zuzendariekin, 2021/2022 ikasturtean zehar bilerak egin izan dituzte, Campuseko gaien kudeaketan elkarlana egon dadin.
- Gipuzkoako errektoreordetzak, Campuseko Dekano eta Zuzendariak, EHUko ikerketaren emaitzak eskualdatzeko bulegoak (IEEB) eta Euskampus Fundazioak, elkarlanean, EHU 2030 Gipuzkoa dokumentua landu dute. Dokumentu honetan bi gai nagusien inguruko gogoeta partekatu bat da: Gipuzkoako lurraldearen erronka nagusiak era orekatu eta jasangarri batean aurrera egin dezan, eta UPV/EHUko Gipuzkoako Campusaren balio proposamena lurraldearen etorkizuneko erronka handien garapenean eta eraldaketan laguntzeko.

2.3 Errektoreordetzaren Zuzendaritza taldeak, Campuseko ikastegi ezberdinetara bisitak egingo ditu eta ikastegietako zuzendaritza taldeekin bilerak, kudeaketan laguntza eskaintzen.

- 2021/2022an (urritik uztaila bitartean), Zuzendaritza taldeak Ekonomia eta Enpresa Fakultatera (Donostiako Atala), Informatika Fakultatera, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatera (Donostiako Atala), Eibarko Ingeniaritza Eskolara eta IMHra (Elgoibar) bisitak egin ditu. Errektoreordetzaren Zuzendaritza taldeak, Campuseko ikasleriarekin komunikazio bideak sendotuko ditu, Ikasleen Kontseiluarekin izango duen harremanaren bitartez.
- Ikasleen ordezkariak, Campuseko Batzorde ezberdinetan parte har dezaten, bi bilera egin dira eta bertan parte hartzeko sistema azaldu zaie eta beraien parte hartzea oso garrantzitsua dela aipatu.

2.4 Campuseko Batzarrean, Errektoreordetzaren zuzendaritza ezberdinen jardueri buruzko informazioa eta eztabaida sustatzea.

- 2021eko urriaren 26ko Campuseko Batzarrean, zuzendaritza taldeko kideek, zuzendaritza ezberdinetan, 2021/2022 ikasturtean egitekoak ziren jarduera ezberdinen berri eman zuten.

2.5 Campuseko Batzarrean, Gipuzkoako Campusean kudeatzen diren hitzarmenen izapideen eta kudeaketa prozedurari buruzko informazioa zabaldu, hitzarmenak sinatzeko asmoa duten pertsona ezberdinek prozedura zein den jakin dezaten.

- Campuseko zuzendaritza taldeak, Campuseko ikastetxeetako Dekano eta Zuzendariekin egindako bileran (2022ko uztailaren 11n) hitzarmenen izapideen eta prozedurei buruzko informazioa zabaldu zuen.

3 AZPIEGITURAK ETA BALIABIDEAK

3.1 IKERBASQUE lagundu, Joxe Mari Korta zentroko II. Faseko proiektuak idazteko fasean eta obrak egiten ari diren bitartean.

- IKERBASQUEekin elkarlanean aritu gara KORTA II eraikitzeke lizitazio-proiektuak idazteko. Lizitazio hori ekainaren amaieran argitaratu zen eta IKERBASQUEko gerentearen 2022ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren bidez esleitu zen. Bestalde, alde aurretik, UPV/EHUko gerentearen 2022ko ekainaren 21eko Ebazpenaren bidez, IKERBASQUE Fundazioari eraikin hori eraikitzeke herri-jabariko emakidaren baldintzak zehaztu ziren.

3.2 Ikasle-egoitza berriak eraikitzeke aukerak aztertu.

- Manuel Agud Querol unibertsitate-egoitzan bizi diren UPV/EHUko ikasleekin harremanak izan dira, baita egoitzako arduradunekin ere.

3.3 Irisgarritasun Plana garatzen jarraitu.

- Campuseko zentro eta eraikinetan hainbat lan egin dira irisgarritasuna hobetze aldera.

3.4 Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak planteatutako beharretatik abiatuta, lehiaketa publikoaren bidez, proiektu baten kontratazioa eta obren lizitazioa bideratzeko baliagarria izango den proiektu baten garapenean lan egin.

- Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak aurkeztutako beharrak kontuan izanik, fakultate berria izan daitekeenaren eraikuntzarako eta ekipamendurako, ospital birtuala barne, aurrekontua landu da. "EHU 2030 Gipuzkoa" izeneko dokumentuaren Osasun eta Ongizatea gunean jasota dagoen Campuseko proiektu estrategikoa baita.

3.5 Plangintza eta Azpiegituretako Gerentziaordetzarekin lankidetzan aritzea UPV/EHUren eraikinetako Azpiegituren Plana garatzeko. Plan horretan, eraikinetako bakoitzak bere jarduerak garatzeko behar dituen erreformak jasoko dira, instalazioetan erabiltzaileen segurtasunera bideratutako neurriak ezarriko dira eta irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko neurriak bultzatuko dira. Eraikinen mantentze prebentiboaren alde egitea, lehenetsunez.

- Hiru Campusetako eraikin guztien fitxa teknikoak egin dira. Horietan eraikinen premia guztiak aztertu eta islatu dira, ekonomikoki balioztatu dira eta premiaren eta tipologiaren arabera sailkatu dira. Lortutako informazioan oinarrituta, proposamen bat egin da datozen urteetan egin beharreko inbertsioekin.

3.6 Campuseko zentro eta eraikinetan berrikuntzak, hobekuntzak eta egokitzapenak egiten jarraitzea.

- Hainbat lan gauzatu dira, segurtasunari, osasunari eta eraginkortasun energetikoari lotutako alderdiei erantzuten diotenak lehenetsiz.

4 EKINTZAILETZA ETA TRANSFERENTZIA

4.1 Ekintzailletza

4.1.1 Ikasle eta irakasle-ikerlarien artean kultura ekintzailea sustatu.

- Entreprenari Programaren barruan burutu diren jarduerak:
 - Hitzaldia. 2021/09/16. Hezkuntza Filosofia eta Antropologia Fakultatea. 40 ikaslek parte hartu dute (28 neska, 12 mutil).

- Hitzaldia. 2021/11/02. Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Eibarko atala). 48 ikaslek parte hartu dute (18 neska, 30 mutil)
- Bic Gipuzkoaren egoitzara bisita. 2022/05/03. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea. Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Graduan ibilbide dualeko "Enpresarako orientazioa" irakasgaiaren ikasleekin. 22 ikaslek parte hartu dute.
- Bic Gipuzkoaren SPORTEK HUB egoitzara bisita. 2022/05/27 Ekonomia eta Enpresa Fakultatea. Kirolaren Kudeaketa Masterreko. "Berrikuntzaren kudeaketa kirol arloan" irakasgaiaren ikasleekin. 10 ikaslek parte hartu dute.
- Gizarte - Ekintzailtzako Unibertsitateko Inkubagailua (Lotura Giza Garapena):
 - Psikologiako Fakultatean inkubagailuaren 1go mintegiaren aurkezpenak. 2021/09/24. Guztira, gaztelaniazko 100 ikasle eta euskarazko 80 ikasle inguru egon dira aurkezpenetan.
 - HEFA Fakultatean inkubagailuaren 1go mintegiaren aurkezpenak. 2021/10/19. Aurkezpena klasetik kanpo, Gizarte Hezkuntza, Pedagogia, Antropologia eta Filosofia graduetan.
 - Psikologia Fakultateko 43 ikasleekin 1. mintegia martxan jartzeko 3 talde sortu dira. Mintegi hauetan ikasturte osoan zehar lan egin dute etxerik gabekoan egoerak hobetzeko ekintza berritzaile eta egituratuak diseinatzeko.
- Donostia Sustapenak. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea. Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Graduoko "Berrikuntza Sistemak eta Politikak" irakasgaiaren ikasleek antolaturiko Donostia **Innovation Challenge** lehiaketan parte hartu zuten 2021eko irailtik abendura.
- BerriUp azeleragailuaren hitzaldia Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan. 2022/03/23, Ingeniaritza Zibila, Ingeniaritza Elektronikoa eta Automatika, Ingeniaritza Elektrikoa eta Ingeniaritza Mekanikoko Graduetan, "Enpresen Antolakuntza" eta "Enpresen Administrazio eta Ekonomia" irakasgaietan. Guztira 110 ikasle (35 neska + 75 mutil).
- BerriUp azeleragailuarekin lankidetzaren hitzarmena sinatu da.
- Gipuzkoako Campuseko errektoreordetzaren webgunean ekintzailtzaren atala berritu da, Campusean dauden programen informazioa eta egiten diren jardueren berri emateko.

- 4.1.2 Campuseko enpresa proiektuak bultzatzeko laguntza-programak aurrera eraman. Programa hauetatik laguntza ekonomikoak, sariak eta beka antolatu.
- GEB 2020 edizioan parte hartu zuten Gipuzkoako 6 proiektuen jarraipena egin da Entreprenari programara bideratuz.
 - Entreprenari programaren baitan, ikasturte honetan 2 enpresa sortu dira Gipuzkoako Campusetik: **Proteinmat** eta **Innovate Tree**. Aldi berean, Gipuzkoako Campusetik sortutako **Proteinmat**, **Waterguard** eta **Innovate Tree** enpresak Ekintzaile/Txekintek deialdian aurkeztu dira finantziazioa lortuz.
 - XXI Manuel **Laborde Werlinden** Sariak antolatu dira. Edizio honetan kategoria berri bat sortu da "Gradu Amaierako Lan, Master Amaierako Lan eta Doktorego Tesi ekintzaileak" izenarekin, enpresa sorkuntzara eraman dezaketen ikasleen lanak saritzeko. Kategoria honek betiko "Ekimen Berritzaile Berriak" kategoriarekin osatuko du aurtengo saria. Kategoria bakoitzean 7 proiektu aurkeztu dira eta irabazleak "**AI composer**" (GrAL, MAL Tesi kategoria) eta "**Proteinmap**" (Ekimen Berritzaile kategoria) izan dira. Sari banaketa abenduaren 5ean izan zen JM Korta zentroko Auditorioan.
 - UPV/EHU Gazte Ekintzaitzarako Beken V. deialdiaren kudeaketa egin da eta honi loturiko formakuntza antolatu da. Ikasturte honetan 54 proiektu aurkeztu dira, 48 onartuak izan dira eta 25 beka esleitu dira.
 - GEB 2021 edizioaren itxiera ekitaldian Entreprenari programa aurkeztu da eta Gipuzkoako proiektuen balorazioa egin da.
 - 2021eko abenduaren 3an, Gipuzkoako Campuseko egoitzan Entreprenari Aholku Batzordearen 3. bilera burutu zen. Bertan lurraldeko 6 enpresek parte hartu zuten (Danobat Group, TTT Group, IKOR, Erreka Group, SAMMIC, Salto System), Bic Gipuzko eta Gipuzkoako Campuseko errektoreordetzako kideekin batera.
- 4.1.3 Campuseko eta Unibertsitateko Ekintzaitza Planak.
- Gipuzkoako Campuseko Ekintzaitza eta Transferentzia zuzendaritzak i2i (**Idea to Impact**) proiektuan parte hartu du.

4.2 Transferentzia.

- 4.2.1 Inguruko erakundeekin harremana sendotu.
- Donostiako Estrategia Bulegoaren Gizarte Kontseiluan eta Plan Estrategikoaren Lan Batzordean Campuseko errektoreordetzako kideek parte hartu dute.
 - Gipuzkoako Foru Aldundiarekin "Etorkizuna Eraikiz" hitzarmenari beste bi urteetarako jarraipena eman zaio. Hitzarmena honi esker ondorengo bi urteetarako

17 ikerketa eta transferentzia proiektu finantzatzen dira, beti ere lurraldearen behar estrategikoak kontuan hartuz. Bestalde, Gipuzkoako etorkizuneko erronkak zehazten laguntzeko gizarte zibil ez hain antolatuak parte hartu dezan izaera oso berezia duen proiektu bat finantzatu da: Gipuzkoako Lurraldean Elkarlaneko Kogobernantza arloko Ikerketa Proiektua.

4.2.2 Unibertsitate-enpresa gelen sarea sendotu eta zabaltzea.

- Gipuzkoako Campuseko Tecnalia enpresa-gelaren kudeaketa egin da. Ikasturte honetan, GrAL bat eta MAL bat egin dira gela honen barruan, gainera, bi doktorego tesi egiten ari dira. 2022ko maiatzaren 12an Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako irakasle-ikerlariekin bilera egin zen unibertsitate-enpresa aurkeztuz. 2022ko ekainaren 17an, Ekonomia Zirkularraren gaiaren inguruko lan jardunaldi bat antolatu zen Tecnaliako egoitzan, UPV/EHUko 12 irakasle-ikerlari eta Tecnaliako 11 ikertzaile bildu zirelarik.
- 2022ko ekainaren 29an, Gipuzkoako Campuseko unibertsitate-enpresa gela bilera burutu zen, beraien errealitatea eta beharrak ezagutzeko. Momentu horretan Gipuzkoako Campusean indarrean dauden unibertsitate-enpresa gela guztiak aurkeztu ziren, guztira 11 unibertsitate-enpresa gela.

4.2.3 Zientziaren dibulgazioa gizartean areagotu.

- 2021eko azaroaren 4tik 7ra XXI. Zientzia Astea ospatu zen modu bimodalean. Edizio honetan txokoak online aurkeztu ziren. Tailerrak, hitzaldiak, Zientzia Kluba eta bisitak aldiz aurrez aurre eskaini ziren, guzti hauetan hitzordua beharrezkoa izanik.
- EGOKITU programaren IV. edizioa burutu da Gipuzkoako campusean DBH eta Batxilergoko ikasleak gure zentroetara ekarriz. Aurten, ikastaroak 7 zentroetan eskaini dira, eta 150 ikasle izan ditugu zentro horietako 173 plaza betetzen.

4.3 Enplegarritasuna.

- 2022ko apirilaren 7an Gipuzkoako Enplegu Foroa burutu zen. 28 enpresek parte hartu zuten eta 110 lan-eskaintza erregistratu ziren aldez aurretik.
- Gipuzkoako Enplegu Foroan bertan "Aukera profesionalak Europako erakundeetan" hitzaldia burutu zen, Endika Bengoetxearen eskutik. Aurrez- aurre 25 ikaslek eta *on line*, 30 ikaslek parte hartu zuten.

5 IKASLEAK, MUGIKORTASUNA ETA KIROLA

5.1 Ikasleak.

5.1.1 Landa-praktikak egiteko diru-laguntzak eman.

- Campuseko Errektoreordetzak argitaratutako deialdian, 40 eskari aurkeztu dira eta eskari guztien artean, 24.137,28 euro esleitu dira.

5.1.2 Ikasleriaren parte hartzea Campusean sustatu.

- Ikasle kontseiluarekin harremana hobetze arren, ikasleen ordezkariekin hainbat bilera egin dira, haintzat interesa duten gai ezberdinak lantzeko asmotan.

5.1.3 Ostatuaren aukera ezberdinak bultzatu.

- Bilera batzuk antolatu ditugu etorkizunerako ostaturen bat eraiki ahal izateko Campusean.

5.1.4 Graduazio ekitaldi jarduera antolatzeko ikastegi eta ikastegietako atalei zuzenduriko diru-laguntzak.

- Graduazio ekitaldiak antolatzeko Errektoreordetzak argitaratutako deialdian, 15.000 euro eskaini dira, eta 2022ko iraila arte, 6 eskari aurkeztu dira. Aurkeztutako eskarien artean 5.093,03 € banatu dira. Egindako ekitaldietan, gurasoak barne, 1.000 pertsona baino gehiagok parte hartu dute.

5.1.5 Gradu ezberdinetako ikasle onenen aitortza-ekitaldia berreskuratu.

- Pandemiaren ondorioz, aurreko urteetan antolatu ez denez, aurten, 2019/2020 eta 2020/2021 ikasturteetako ikasle onenen aitortza ekitaldia antolatu du Campuseko Errektoreordetzak eta 80 ikaslek eta beste horrenbeste senidek parte hartu dute.

5.1.6 Unibertsitate ikasketen eta Lanbide Heziketaren ikasketen arteko zubiak sendotzeko jardunaldien antolaketa.

- Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, jardunaldi batzuk antolatu dira Campusean. Unibertsitateko eta Bigarren Hezkuntzako ordezkari zabala batuz.

5.1.7 EGOKITU programa indartzeko ekimenen antolaketa.

- EGOKITU programaren IV. edizioa burutu da Gipuzkoako Campusean DBH eta Batxilergoko ikasleak gure zentroetara ekarriz. Aurten ikastaroak 7 zentroetan eskaini dira, eta 150 ikasle izan ditugu zentro horietako 173 plaza betetzen.

5.1.8 Gipuzkoako eskualdeetara egin beharreko bisitak eta aurrez-aurreko hitzaldiak berreskuratu, ikasle potentzialengana hurbiltzeko.

- Gipuzkoako eskualdeetan (Eibar, Arrasate, Errenteria, Donostia, Legazpi, Beasain eta Tolosan), Batxilergoko ikasleentzat antolatutako aurrez-aurreko eta *on line* bilerak berreskuratu ditugu, UPV/EHUren eskaintza zabaltzeko eta gerturatzeko asmotan. 400 ikasle/guraso hurbildu edota konektatu dira bilera hauetara.

5.1.9 UPV/EHUri buruzko informazio-jardunaldi ezberdinetan parte hartu.

- Gipuzkoako Errektoreordetzak eta Campusean dauden ikastegiekin, Donostian egindako UPV/EHUren Unibertsitate Orientazio azokan parte hartu dute.

5.2 Kirola

5.2.1 Kirol probak eta txapelketak antolatu eta bertan parte hartu.

- Campusean, 9 talde txapelketa antolatu dira eta 976 lagunek parte hartu dute. Binaka eta banakako 8 txapelketetan, 38 lagunek hartu dute parte.

5.2.2 Kirol Ikastaroak eta jarduerak antolatu

- Gipuzkoako Campusean, Kirol Zerbitzuak antolatutako 21 jardueretan, unibertsitate komunitateko 2.397 pertsonen parte hartu dute.

5.2.3 Kirol- praktika sustatu eta ohitura osasuntsuak sustatu.

5.3 Mugikortasuna eta Campus iraunkorra.

5.3.1 Elkarte Zientifikoetako zuzendaritza postuetan parte hartzearen laguntzak eman, mugikortasuna sustatuz.

- Mugikortasuna sustatzeko argitaratutako laguntzetan, bi eskari aurkeztu dira eta bien artean 2600€ jaso dituzte (1300 bakoitzak).

5.3.2 Biltzar Zientifikoetan parte hartzeko laguntzak eman, mugikortasuna sustatzeko.

- 2021/2022 ikasturtean Gipuzkoako Errektoreordetzan ez da mugikortasuna sustatzeko laguntza eskaerarik jaso.

5.3.3 Prebentzioa eta Segurtasuna Campusean bermatu.

- Gipuzkoako Campuseko prebentzio eta lan segurtasun arloko batzordeak, 4 bilera egin ditu. Campuseko ordezkariak, prebentzio eta lan segurtasun arloko Campus arteko bileretan ere parte hartu dute.

5.4 Eleaniztasuna.

5.4.1 Ikertzaile ez egonkorrei zuzendutako ikastaroak (Ingelesa).

- Ingeleseko bi ikastaro eskaini dira, baina gutxienerako matrikula kopurua bete ez denez, ikastaroak ezin izan dira eman.

5.4.2 Oinarrizko hizkuntza ikastaroak (Frantsesa).

- Frantsesezko bi ikastaro eskaini dira, baina gutxienerako matrikula kopurua bete ez denez, ikastaroak ezin izan dira eman.

6 EUSKARA ETA KULTURA

6.1 Gipuzkoako Campusean Euskararen III. Gida Plana (2018-2022) garatzen jarraitzea.

6.1.1 Euskara, Kultura eta Nazioartekotze Errektoreordetzarekin batera, Gipuzkoako Campus taldeak honakoak burutu ditu:

- **AKTIBATU** euskara sustatzeko deialdiaren garapena bultzatu. 9 ekimen bete dira.
- Euskararen nazioarteko astea ospatzeko, campuseko ikastegi guztietan 19 ekimen garatu dira.
- **KORRIKA**, euskara indartzeko giza-mugimenduan Campusaren parte hartzea bideratu da antolaketa lanetan eta ekimenean bertan parte hartuaz.
- **EUSKARALDIA**. Gipuzkoako Errektoreordetzak, 2021ko udazkenean egindako (azaroaren 21etik abenduaren 4ra) ekimenaren antolaketan parte hartu du, **TOPAGUNE**arekin batera.
- Errektoreordetzak **BIKAIN** ziurtagiria eskuratzeko eskaera aurkeztu du.

6.1.2 Unibertsitateko bizitzako esparru guztietan euskararen erabilera areagotuko duen dinamika sustatzea.

- Burutu diren ekimen denak, bistaratzen diren mezuak eta eguneroko harremanak euskaraz dira.

6.2 Euskara tekniko-zientifikoaren zabalkundea eta erabilera sustatzen duten ekimenak bultzatzea.

- Amaitu egin da 2021-2022 ikasturteari dagokion EHU-Wikipedia proiektua, Euskal Wikilarien Kultura Elkartearekin lankidetzan. 100 artikulua baino gehiago igo dira webgunera Gipuzkoako Campusetik.

6.3 Euskarazko irakaskuntza-materiala sortu, egokitu eta zabaltzen laguntzea.

- Unibertsitatearen Hedakuntzarako deialdian aurkeztutako proiektuen artean, 25.000 € banatu dira.

6.4 Unibertsitateko kide bakarreko zein kide anitzeko organoen bileretan euskararen erabilera sustatzea.

- Lan talde, batzorde eta elkarlanerako bilera denak euskaraz burutu dira: Campuseko Euskara Batzordea, Campuseko Euskara-Kultura lan taldea, Campuseko Euskara Kultura kudeaketarako taldea, ekimen desberdinetarako taldeak (Wikipedia, Zinea, Dantza, Unea, Elkano ...), e.a.

6.5 Kultura-hedapeneko jarduerak bultzatzea.

- ERAKUSKETAK. 12 lan-bilduma bistaratu dira Txillardegia Aretoan eta Ignacio M^a Barriolan eraikinean: "Irudiekin istorioak kontatuz"; "Txoriak txori"; "La arquitectura del azar"; "Arkitektura Master Amaierako Lanak"; "Alde edo alde"; "Pantanal. Reserva de Biosfera. Brasil"; Espacios en construcción; *Femmes en resistance* (Alianza Francesa); "30 urte habia-kutxekin"; "Indestructibles (Infancia Africana)"; "Victimización por abusos sexuales en la Iglesia"; "Beirate proposamenak (Arkitektura Goi Eskola Teknikoa)".
- SORKUNTZA ikastaroak, 8 izan dira: Konpostazeko tailerra 1 LH (2); Irudiekin istorioak kontatuz (argazkigintza); "Los motivos del viaje: la poesía como vehículo" (Poesía); Irakurketa taldea (tertulia literarioa, 2); "Paperetik gorputzera" (antzerki ikerketa); El teatro como herramienta de intervención (UENA).
- Ikuskizunak; "*Tupper Sex*" (URRUP Taldea, "Arrabaladas" (UPNAko Unibertsitate antzerkia).
- Ospakizunak: Liburuaren eguna ospatzeko, Campuseko Liburutegiarekin batera, Miren Agur Meabe (Poesía sari nazionala) eta Musikeneko Karmele Castillo musikaria (Txeloa) ekarri genituen Carlos Santamaria eraikinera.

- Jardunaldiak eta hitzaldiak. Musikenerekin batera, "El canto y los instrumentos musicales en las culturas de Europa y Asia" hitzaldi zikloa antolatu dugu; 77 pertsonak izena eman dute. Horretaz gain, Foru Aldundiarekin batera Kultura eta enpleguari buruzko jardunaldia antolatu dugu; eta Gandere ikerketa taldearekin batera, "Mee too" saioan parte hartu dugu.
- "Plazan: Elkano 500 urte" buletina sortu da. Getariarren bidaiaria hura inspirazio hartuta, UPV/EHUko kideek sortutako ipuinak, argazkiak, marrazkiak eta tankera desberdinetako lanez bete dira buletinaren orriak. Baita dokumentu eta liburuetan adituak direnen iradokizunez ere.

6.6 Kultura ekimenetan, Campuseko unibertsitate kideen parte hartzea ahalbidetzea.

- Euskara-kultura lan taldeak (ikastegi bakoitzeko irakasle bat, liburutegia, AZP, ikasle bat) hiru bilera egin ditu ikasturte honetan, nahiz eta harremana, talde honetako kideekin etengabea izan den.
- EHUkultura Gipuzkoa programaren garapena Campusean garatzen da, EHUkideek eskura eduki dezaten antolatzen diren ekimen guztiak.
- Gipuzkoako Campusean hitzaldiak, kongresuak, jardunaldiak eta beste unibertsitate hedakuntzako ekintzak burutzeko diru-laguntzak ahalbidetzeko hedakuntzarako deialdia argitaratu da.

6.7 Inguruneko kulturaren funtsezkoak diren eragileekin lankidetzaren hitzarmenak bultzatzea.

- Donostiako Udala, San Telmo Museoa, Zinemaldia, Euskal Filmoteka, Tabakalera, Musikenerekin eta "Medicus Mundi" erakundeekin hitzarmenak berriro dira.

6.8 Unibertsitateko sareak aberasten dituzten kultura-elkarteekin lankidetzaren hitzarmenak bultzatzea.

- UPNA-ko antzerki taldeak Ignacio M^a Barriolan Zentroan "Arrabaladas" ikuskizuna eman zuen.

6.9 Unibertsitateko irudia zabaltzeko jarduerak sustatzea.

- UPV/EHU - Donostiako Orfeoia XXI Saria ospatu da.

- HEFA eta Donostiako Udalak antolatutako Oihenart Aforismoen X. literatura lehiaketaren garapenean lagundu du Campuseko errektoreordetzak.

7 ESPERIENTZIA GELAK

7.1 Esperientzia gelen formakuntza eskaintza berrikustea, gizartearen eskariari erantzunez.

- Sailetatik 6 irakasgai berrien proposamena jaso genituen eta 2021-2022 ikasturterako 3 hautazko irakasgai berri eskaini ditugu gure ikasketa planean.

7.2 UPV/EHUko hiru Esperientzia Gelen inguruan oraina eta etorkizunaren inguruan hausnartu eta koordinatu.

- Hiru Campusetako zuzendarien artean 4 bilera egin dira Esperientzia gelen inguruan hausnartzeko eta gure lan ildoak bateratu eta koordinatzeko.

7.3 Esperientzia geletako ikasle ohien ACEX/ESKE elkartearekin harremana estutu eta lankidetzaz suspertu.

- ACEX/ESKE elkarteko ikasle ohiekin bilerak mantentzen dira beraien ekimenak gure ikasleen artean zabaltzeko eta behin ikasketak bukatuta, elkartean parte hartzea suspertuz.

7.4 Esperientzia geletako ikasle ohien artean EHUalumni ezagutarazi eta parte hartzea suspertu.

- Ikasleen artean *EHUalumni* sarearen inguruko informazioa zabaldu zen, bertan parte hartzea suspertuz.

7.5 Esperientzia geletako ikasleen eta graduiko ikasleen arteko belaunaldien arteko loturak sendotzea.

- 2021-2022 ikasturtean, Giza Zientzien titulazioa egin duten 77 ikasleak gradu ofizialetako irakasgai desberdinetan matrikulatu dira.
- Esperientzia Geletako ikasle talde batek, "Etorkizun Eraikiz Foro"ko elkarriketa eta topaketetan parte hartu du, gradu ofizialetako beste ikasle gazteekin batera.

7.6 AEPUM (Asociación Española de Programas Universitarios para mayores) elkartean parte hartzea indartu.

- 2021-2022an elkartearen *online* bileretan parte hartu da eta EHUko Gizarte Kontseiluak *AEPUM*ekiko atxikimendua onartu du.

7.7 Esperientzia geletan kultura-jardueraren eta unibertsitate-ikerketaren dibulgazioa sustatzea.

- Esperientzia Geletako ikasleek inguruko eragile kultural eta sozialek antolatutako hainbat jardueretan parte hartu dute (Tabakalera, Elias Querejeta Zine Eskola, Zinemaldia, Euskadiko Filmategia, D'Elikatuz, Ekain Berri, *Photomuseum*...)
- 2021-2022 ikasturtean, UPV/EHU-ko 7 ikertzailek bere ikergaiaren inguruko dibulgazio zientifikoko hitzaldia eman dute gure zentroan.